



Laneko Osasunaren Informazio Buletina

90 alea / 2023ko urtarrila

Berritasunak



Geure osasuna da prebentzioak dakarkigun onurarik handiena. Lan-ingurune seguruagoak lortzeko lanean jarraitzea da Lan Osasunaren Zerbitzuaren helburua 2023. urterako. Helburu hori lortzeko lan-arloko eragile guztien konpromisoa eta inplikazioa behar dira. Horretarako, funtsezkoa izanen dira **Prebentzioa Enpresen Kudeaketan Txertatzeko Programa** garatzea eta **Laneko Osasunaren 2022-2025 Planaren** programak abiaraztea. Duela gutxi lan osasuneko egutegia banatu da Nafarroako enpresetan: 2023ko egutegi horren mezuek egunero gogorarazi nahi digute elkarrekin aritu beharra dugula helburu hori lortzearren.



Istripu bati buruzko alerta berria argitaratu da: obran gertaturiko harrapatze bat. NOPLOIren webgunean irakurgai dago [13. Alerta: Istripu hilgarria obran gertaturiko harrapze baten ondorioz](#). Lan Osasunaren Zerbitzuaren alerta horren xedea da jabetu gaitzen zeinen garrantzitsua den ahalik eta konturik handienaz jokatea pertsonak eta ibilgailuak batera dabilzan eraikuntza-lanetan, eta, bestetik, ezagutarazi nahi da zein diren halako inguruetan hartu beharreko prebentzio-neurriak. [Istripu alertak](#) ormatu txikiko txostenak dira, eta, haietan, gertatutako lan-istripuen kausak eta ezaugarriak zehazten dira, antzeko istripurik gerta ez dadin berriz.

Nabarmendua



NOPLOIk LHko ikasleendako INIZIA ekintzaitza-programan parte hartzen du. NOPLOI eta María Ana Sanz IBko ikasleak batera ari dira **kanpoko lanetan bero-kolpeak prebenitzeko app bat garatzeko proiektu batean.** Ekimena Hezkuntza Departamentuaren INIZIA programaren barnean kokatzen da eta haren bidez ekintzaitzako jokabideak sustatu nahi dira Lanbide Heziketako ikasleen artean. LHko ikastetxeen eta kanpoko erakundeen arteko 16 proiektuak duela gutxi aurkeztu ziren [jardunaldi](#) batean.

NOPLOIko teknikariek jardunaldi batean nabarmendu dute zeinen garrantzitsua den istripuak ikertzea prebentzioaren kudeaketan. NOPLOIko teknikariek [“Prebentzioa erakundeen DNAn”](#) izeneko jardunaldian parte hartu zuten abenduaren 16an. Hitzaldiaren ardatza izan zen nola erabili zuzen kausen zuhaitzaren metodoa istripuak ikertzeko. Tresna hori funtsezkotzat jotzen da laneko arriskuen prebentzioa eraginkortasunez kudeatzeko.

La Prevención en el ADN de las organizaciones



Lan osasungarriak: zama astunik ez kanpainaren berri zabaltzeko materiala. Bukatu da EU_OSHaren kanpaina 2020-2022rako, **Lan osasungarriak: zama astunik ez** izenekoa, helburu izan duena gihar-hezurretako nahasmenduen prebentzioa. [Esteka](#) honetan ikus eta deskarga daiteke bi urteotan landu diren arloei buruzko material guztia, informatiboa eta dibulgaziokoa (gihar-hezurretako nahasmendu kronikoak, sedentarismoa, aniztasuna, telelana, etorkizuneko belaunaldia, eta gihar-hezurretako nahasmenduak eta arrisku psikosozialak). EU-OSHAk aurreratu du hau izanen dela hurrengo kanpainaren gaia: **lan segurua eta osasungarria aro digitalean.**


Lanaren Nazioarteko Erakundeak bortxazko lanen aurkako behatoki bat jarri du abian. LANEK **Bortxazko lanen aurkako Behatokia** abiarazi berri du. Datu-baseak batera bildu nahi du problematika horri buruzko informazioa, eta munduko zein estatuko informazioa eskaintzen du. Nazioarteko erakundearen datuen arabera, **27,6 milioi** pertsonak egiten dituzte bortxazko lanak. Horietatik, 17,3 milioi sektore pribatuan daude; 6,3 milioi bortxazko merkataritza-esplotazio sexuala jasaten dute, eta 3,9 milioi estatuak inposaturiko bortxazko lanetan ari dira.



Berriak

- [Prebentzio-kultura, enpresetan lan-osasuna sustatzeko tresna gisa](#)
Nafarroako Gobernua
- [El riesgo de trabajar en un hospital o en servicios sociales: suben un 57% los accidentes laborales](#)
Público
- [Multa a Ryanair por no proteger a sus trabajadores del calor este verano en vehículos a más de 41 grados](#)
eldiario.es
- [Las empresas se sientan en el diván: las bajas por problemas de salud mental aumentan un 17%](#)
El país
- [La violencia y el acoso en el trabajo afectan a más de una persona de cada cinco](#)
OIT
- [Lan Ikuskaritzak 2023rako plangintzaren barruan jarduerak gehituko ditu, laneko arriskuak prebenitzeko bi kanpaina berri eginda](#)
Nafarroako Gobernua

Argitalpen digitalak




Factores psicosociales en la conducción del transporte sanitario por carretera
INSST



Factores psicosociales en la conducción de mercancías por carretera
INSST



Factores psicosociales en la conducción de transporte de viajeros por carretera
INSST




Factores psicosociales en la conducción de transporte de mercancías por carretera
INSST



Factores psicosociales en la conducción de transporte colectivo por carretera
INSST



Erga Legislación (Nº11)
INSST



Revista Internacional del Trabajo
OIT

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI) ez du bere gain hartzen argitaraturiko artikuluen eta albisteen edukirik; izan ere, bere horretan hartu dira kasuan kasuan aipaturiko webgunetik, eta ez zaie aldaketarik egin ezta deus erantsi ere. Edozein kontsulta edo iradokizun egin nahi baduzu, edo ez baduzu bidaltzaile honen informazio gehiago jaso nahi, NOPLOIra jo dezakezu, helbide elektronikoa honetara ispn.ufii@navarra.es



ARGITARATZAILEA:

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua (Landabengo industrialdea, E eta F kaleak. 31012 Iruña)
☎ 848 423 771
Edizio-formatua:
Fitxategi elektronikoa - 2023ko urtarrila